

Rozalejo: denon ondarearen defentsa etsia

2017ko abuztuan lagun batzuk indarrez Navarrieriako Plazan dagoen Rozalejoko Markesaren Jauregian sartu zirenetik, gure Erkidekogo gehienek hola galdetzen zioten bere buruari: "Baina... ezin ditu inork handik atera? Denen ondarea den eta inork ere hura okupatzeko eskubiderik ez duen hori ezin dugu defenditu?"

Erantzuna baietza da: Bai, denon ondare hori defenda daiteke, eta defendatu egin behar da.

Jakina elkarrizketa bideak ireki behar direla, elkarrizketak elkarte guztiekin gune publikoen kogestio eta autogestioaz; hola biltzen du, gainera,

2015ean Aldaketaren Gobernuari bide eman zion Hitzarmen Programatikoak.

Baina elkarrizketa bide horiek ezinbestean errespetatu behar dituzte aukeren berdintasunaren printzipioak, talde eta elkarte guztiek hautu berberak izan behar baitituzte. Okupazioa ez da eta ezin da izan onartutako konponbidea, eta aise gutxiago era pribatuan eta eksklusiboan gune publiko baten legezkotze bidea.

Ordezkarri publiko guztiek defendatu behar dute ondare komuna, haien zeregina baita Nafarroako hiritarren ondasunen erabilera egokia zaintzea.

Edozein okupazio gertatzen delarik...

"...ondasun publiko guztiak arduraz, baina tentsioaren babesik gabe, defendatu. Bokazioa elkarrizketarako, eta ondare publikoen defentsa, guztien ondasunarena, hiritar guztiak gogoan. Horixe gure estandarte".

UXUE BARKOS Nafarroako Gobernuko Lehendakaria



Zer dio Hitzarmen Programatikoak?

"Ez da arazorik jardueren autogestioarekin; bai, ordea, begiramenik gabe berrokupatutako ondasun baten autogestioan. Rozalejosen batzar baten esku uzten da kudeaketa... ordezkari gisa inork ere hautatu ez duen talde batean alegia"

KOLDO MARTÍNEZ
Foru Parlamentarioa
Geroa Bairen izenean



"Badira erabil daitezkeen bideak jarduera autogestionatuak garatzeko, eta badira gune publikoak holako jarduerendako. Erabilera arauak ezartzen zaizkiela? Ez bete ezinak, bertze batzuek betetzen baitituzte. Zergatik ez haiek? Prest daude betetzeko? Edo beren arau propioak bakarrik Onartzen dituzte?"

ESTHER CREMAES
MIKEL ARMENDÁRIZ
Iruñeko Geroa Baiko zinegotziak



Gobernuaren Hitzarmen Programatikoak dio beharrezkoa dela "elkarriketa eta parte hartze bideak [irekitzea] gizarte zibilari, oro har, eta batez ere gazte elkarteei, gune publikoen kogestio eta autogestiorako". Eta hori egin behar da, dio testuak, "erabilera publikoa segurtatuz, aniztuna, herritar guztiei, berdintasun hautuan, elkarte guztiek aukera berberak baitituzte".

Ez da zalantzarik gune autogestionatuen gainean egin daitezkeen hitzarmenak erantzukizunean oinarritu behar direla, eta holako tokietan egin daitezkeen okupazioak ezin direla babestu "gogoak ematen didana eginen dut" delakoan.

Eraikin publiko baten erabilera eta gozamenak berarekin dakar haren kudeaketa aniztuna, inoren eta deusen mugarik gabe, betiere denen arteko errespetua eta balio demokratikoak segurtatuz. Ezinen da han egokitze lanik egin udal baimenik gabe, eta ezin da tokiaren jende kopuruari dagokion araudia hautsi edo holako tokietan bateratze publikoek eskatzen duten bestelako segurtasun araudirik gainditu.

"...erabilera publikoa segurtatuz, aniztuna, herritar guztiei, berdintasun hautuan, elkarte guztiek aukera berberak baitituzte".

Zer egin du **Foru Gobernua** Rozalejo okupatu zenetik?

Ondarearen defentsa eta epailearen erabakiak bete

Nafarroako Gobernuak, gizarte gehiengoak eskatzen duen gisan, bere esku izan dituen neurri guztiak onartu ditu ondare publiko hori bereganatzeko, inork ere ez baitu eskubiderik indarrez okupatu eta behin pribatizaturik haren erabilera gutxiengo baten esku uzteko.

Behin Rozalejo okupaturik, 2017ko irailean, Gobernuak okupazio salaketa jarri zuen epailearen aurrean; handik bi hilabetera epaileak "bitartekaritza penaleko prozesu" batera bideratu zuen. Prozesua 2018ko maiatzean akitu zen, emaitzarik gabe.

Prozesuan zehar, eta gero ere, Gobernuak elkarrizketa bidea irekitzen saiatu da. Okupatzaileen erantzuna, pribatuan eta publikoan, beti bat eta bera izan da: erabakia zutela "lokalarekin gelditzea, auzoaren parte baitira dagoeneko, eta horren alde hortz eta bihotz egitea".

Bortxaz egindako holako pribatizazioa dela eta, ba al zen bertze biderik denon erabilerarako behar den Rozalejo ezinbertzez berreskuratzea baino?

Horrela, bitartekaritza penala akiturik, baina elkarrizketa bideak utzi gabe (denek ongi aski dakiten gisan), Gobernuak uztailean jarri zuen kaleratze salaketa. Eta epaileak zehaztu zuen data: abuztuaren 17an.

Poliziak era ordenatu eta txukunean betetzen du lana, nafar gizartearen gehiengoak onartu duenez. Polizia jarduera goresgarria, aitzineko urteetan gertatutakoaz desberdina, ez baitzen atxiloturik edo zauriturik gertatu jauregia okupatzen zuten gazte eta adingabeen artean. Karrikatik "babesa" ematen zieten "ez hain gazteen" artean, 6 zauritu arin.

Ondoren, Poliziak zigilatzen ditu okupatu lokalak, tokia babesteko erabil daitezkeen tresnekin. "Erabil daitezkeen" baliabideekin, bai; Rozalejo Jauregiak, dituen hiri eta arkitektura ezaugarriengatik, arazo handiak baititu tankan zigilatzeko.

Eta zailtasun horietaz baliatu ziren lagun batzuk abuztuaren 17an Rozalejo berrokupatzeko.

Elkarrizketaz

Gobernuak hitz egin du Rozalejoko okupekin epaileak ezarritako bitartekaritza prozesuan, eta gero ere. Ezin da atzendu "in extremis" egindako bilera saioa, okupek berek baztertua, "agenda arazoak" zirela eta. Elkarrizketa ondare publikoa den eraikina uztera bideratua zen, nahita aukeratuak diren beste gune batzuk eskainiz jarduera autogestionatuak egiteko. Erantzuna hau izan zen: "Hemen geldituko gara, eta gure burua defendatuko dugu".

**Faltsukeriak
eta nahasketa**

Berrokupazioaren ondoren “altxor politikoaren” bila

**UPN habla de "efecto llamada" a la
okupación y el PP carga contra
Beaumont**

EFE - Miércoles, 22 de Agosto de 2018 - Actualizado a las 13:57h

Asiron cree positivo que el Gobierno
haya retirado la orden de desalojo del
gaztetxe

Rozalejo berrokupatzen denean, abuztuaren 17ko arratsean, hainbat aktorek egoeratik “altxor politiko” on bat atera zezaketela ikusi zuten. Horien artean, ezberdintasunak ikusten ditugu, hala ere.

Hor daude gazteak eta adin gutxikoak delitu bat egitera bultzatzen zituztenak; aipatutakoak arduragabe txalotzen zituztenak; Aldaketaren Gobernuaren kontra parada aprobetxatzen saiatzen zirenak; eta lehenago aipatu dugun aktorea: epailea.

Eskuinak, parada Gobernuaren kontra erabili duena, zera zioen – bere gezurrak sinisten dituen konbikzio deabrutuaz – “*Gobernuak amore eman dio berrokupazioa toleratzen duen eta desalojoari uko egiten duen Bilduren presioari*”. Aliatu bat aurkitzen zuten Joseba Asiron alkatearen hitz deitoragarrietan, zeinaren prentsa aurrekoa ondoko titularrarekin aipatzen zen “*desalojoaren gabetzea ospatzen du erasotzea*” eta “*Gobernuak errektifikatu du*” azpigituluarekin. Batzuk eta besteak, jakinen gainean egon ala ez, berrokupazioaren protagonista oldartzaileen taldearen epika omen elikatzen ari ziren.

Arduragabekoen artean, zoritxarrez, beren hitzak eta ekintzak gehiago neurtu beharko zituzten kargu publiko batzuk ikusi genituen. Batez ere Nafarroan Aldaketarekin konprometituak omen dauden batzuk.

**“Bazeuden gazteak eta adin
gutxikoak delitu bat egitera
bultzatzen zituztenak;
aipatutakoak arduragabeki
txalotzen zituztenak;
Aldaketaren Gobernuaren
kontra parada aprobetxaten
saiatzen zirenak”**

“Altxor politikoa” da Gobernu bat osatzeko era aitzindari bat, eta era berean gobernatzeko modu ezberdin bat erasotzea gurea bezain Nafarroa anitza eta desberdinean. Hitzarmen Programatikoak markatutako erak eta kide ezberdinen artean dagoen “desadostasunarekiko” eskubide naturalak, eztabaida leialaren bidez zuzendu behar dena. Horrexegatik, gizarteak egunero aztertzen gaituen bezalaxe, **Hitzarmen Programatikoaren kideok geure buruak aztertu behar ditugu Rozalejoz bultzatu ditugun ekintzak direla eta.**

Gobernua ez zen “erretiratu”: epailearen paper sorpresa



Iruñeko 4 zenbakiaren epaileak paper erabakigarri bat jokatu du prozesu osoan. Epaile honek, Gobernuak okupazioagatik sartutako salaketa beharrezkoaren bi hilabete ondoren, bitartekaritza penalera bideratu zuen prozesua. Eta hau bukatutzat eman zuen 2018ko maiatzean. Horren ondoren, Gobernuak desalojoa eskatu zuen. Epaileak data jarri zuen: abuztuaren 17a.

Baina, berrokupazioaren ondoren, epaileak Poliziaren txostenak jasotzen ditu non asteburu horretan ez egitea gomendatzen da hiritar segurtasuna dela eta. Era berean, Gobernuaren eskaera ere jasotzen du, txosten horietan oinarrituta, eraikinaren birlorpena (hots, desalojo berri bat) atzeratzea eskatuz. Baina epaileak, atzeratze tenporal eskakizun hori dela eta, kausak artxibatzea erabakitzen du. **Horrexegatik errekurritu da.**

Gobernuak hiritar segurtasuna dela eta atzeratzea eskatzen du; epailea da kausak artxibatzen dituen

Erabaki judizialak, gainera, perla batzuk ere baditu. Zeren, okupazio lehen salaketa okupatzaileekin bitartekaritza prozesu batera bideratu zuen epaile berak; berak behartutako Bitartekaritza prozesua bukatutzat eman zuenean desalojo salaketa jaso zuen epaile berak... epaile bera da “*Gobernuaren portaeraren balorapen globala*” egiten duena okupazioarekin “*una sobrevenida tolerancia expresa*” mantendu duela salatuz, eta “*gertakizunak* (okupazioa) *ezin direla delitu gisa kalifikatu*” bukatuz.

Ez dakigu zein zen epailearen azken asmoa “*Gobernuaren portaeraren balorapen globala*” egin duenean; baina horrekin **gauzak abuztuaren 17ko eguerdian konpondutzat ikusten zituen gehiengo sozialaren lilura desegin duela; eta, aldiz, berrokupazioaren ondoren altxor politikoa bilatzen zutenak** bai eskuinean bai berrokupatzaileen eta beren bultzatzaileen artean **bizkortu dituela argi dakusagu.**

Kronologia

17/09/03

Rozalejoren okupazioa

17/09/04

Gobernual epailearen aurrean okupazioa salatzen du

17/11/07

Epaileak kasua tartekaritza judizialera bideratzen du

18ko Maiatza

Epaileak tartekaritza prozesua bukatutzat ematen du

18/07/25

Gobernuak desalojo eskaera egiten du

18/08/16

Epaileak desalojoa manatzen du. Berrokupazioa

18/08/17


Txosten polizialek une horretan ez desalojatzeari gomendatzen dute. Epaileak txostenak jasotzen ditu

18/08/18

Gobernuak desalojoa atzeratzea eskatzen du, baina epaileak kausa guztiak artxibatzen ditu

Nork bere kontzientzia aztertu...

Denok daukagu azterketa egin beharra, bai gertatutakoaren inguruan egin direnena, bai esan direnena. Eta bereziki, ordezkari publiko izanda ere, nafar herritarren ordezkariak guztiontzako ona izan behar zuena defendatzen zutenean, huraxe gogorren kritikatu eta inork aukeratu gabeko okupatzaile-talde bati zilegitasun handiagoa aitortu dioten horiek. Beheko hauek adibide batzuk besterik ez dira.



LAURA PÉREZ Orain Bairen izenean parlamentaria

Tras el desalojo: "Es desalojar a quienes impulsaron el cambio en las calles".

Tras el recurso del archivo:

"Vergonzoso, antidemocrático y prepotente".

ARMANDO CUENCA Aranzadiren izenean zinegotzia Iruñean

"Quizá lo más relevante que quede tras el <<asalto institucional>> en Navarra sea el Maravillas".

"Un futuro construido con desalojadores de centros sociales es peor para los de abajo que otros futuros posibles".



@LaTiraDeOroz



...eta galdera konprometitu bat:

Berrokupazioa babesten duten pertsona, alderdi eta erakunde politiko eta sozialek, onartu eta txalotuko al lukete, Nafarroan, Madrilen gertatu den bezala, asmo ustez gizatiarrekin dabilatzaten erakundeek (adibidez, ultraeskuindarrek) erabilera publikoko eraikinak okupatzea?

Erantzukizuna **Aldaketarekin**

2015eko Aldaketak mugarri bat ezarri du, aurrekaririk gabekoa, zenbait belaunaldirentzat. Aniztasunetik abiatuta, Hitzarmen Programatiko bat onartzeko gauza izan ginen. Bazkideok geurea genuen ados ez egoteko eskubidea, pentsatuta, horrelakoetan konponduko ginela elkarrizketa leialaren bidez. Aukera paregabea ireki genuen eta oraindik ere guztiz gaude konprometituak berarekin, Zabaltzenen nahiz Geroa Bai-en. Hainbesteko erantzukizunik hartzen ez duen zenbait jarreraren artean, Aldaketaren aldeko apostua egiten duten adibideak ere aurkitu ditugu Hitzarmen Programatiko hura sinatu zuten beste indar politiko batzuetan.



FLOREN AOIZ
Garako Idazlea



"El cambio navarro no es la revolución, claro, pero reventarlo para volver a zonas de confort y pureza «revolucionaria» no sería un avance sino un trágico retroceso. Hay otras opciones (...) pero para eso hay que mancharse en el barro, claro, y hay quien prefiere ir de guay".

"No puede ser que la ocupación de estos locales pueda conllevar la realización de obras sin autorización municipal como ya ocurrió en el chalet de Caparroso y que derivó en el precintado por parte de EH Bildu de dicho espacio. No puede ser que no se cumplan las normativas de aforos y seguridad obligatorias para locales de pública concurrencia. No puede ser que en estos locales se cuelguen fotos de presos de ETA porque como reconoció en su día Joxe Abaurrea, concejal de EH Bildu en el Ayuntamiento de Iruña << pueden humillar a las víctimas >>".



MARISA DE SIMÓN / EDURNE EGINO

Izquierda-Ezkerraren izenean parlamentaria eta Iruñeko zinegotzia



"Beharkizun zilegi guzti hauen gurutzapenak guztiz zerrendaturik ez badaude ere, elkarrizketaz hasten den lan ariketa bat inposatzen du. Eta aldaketaren Udal eta Gobernuaren hiru urte hauen zehar egiazko ekintzez metodoak funtzionatzen duela frogatu dugu."

UXUE BARKOS Nafarroako Gobernuko Lehendakaria



Txioak



Ana Zizur

@AnaAnsaAscunce

Siguiendo

Proyecto social del @maravillasGTX : pasando de la protección de la salud, de la prevención de riesgos laborales, de pagar impuestos por negocio y de los contratos de los rabajadores. Eso sí, el local privatizado.

14:09 - 21 ago. 2018



Ander Muruzabal

@andermuruzabal

Siguiendo

En respuesta a @ireneotal @General_RE_Lee y a 3 más

El #PiperoDeRozalejo representa a la cuadrilla que lo okupa, como la bajera de debajo de mi casa a los chavales que la pagan

15:07 - 24 ago. 2018



jose miguel gamboa

@Gamboabi

Siguiendo

Si se hunde el cambio que se hunda, okupas siempre palante. Y en esas estamos



Andoni Serrano

@serrazabal1988

En respuesta a @accionantiposm1 @AnaAnsaAscunce y a 2 más

Montarse un pipero en un local del gobierno de Navarra y vender alcohol al mismo precio que el resto de locales, sin pagar impuestos ni suministros no es auzolan, es ser unos jetas

#piperoRozalejo

Zabaltzen
@zabaltzen

Siguiendo

¡Que no te engañen! La opinión de Geroa Bai es la misma antes y después de la Reokupación de #Rozalejo

- 1) Defensa del patrimonio de todxs ante una okupación/privatización
- 2) Respeto al Acuerdo Programático sobre este tema
- 3) Recuperación ordenada de Rozalejos de acuerdo a la Ley

10:40 - 22 ago. 2018